

NEUK SENDATUK ZAITUT, TIGRE

Testua eta ilustrazioak: JANOSCH

Itzulpena: AINHOA IRAZUSTABARRENA BARRIOLA

Azal gogorrez koadernatua. 15 x 23,5 cm. 48 orrialde. 15 €.

Neuk sendatuk zaitut, Tigre (euskaraz)
ISBN 978-84-7681-869-5. Kalandraka-Pamiela.

Jo et curaré, va dir el petit Ós (katalaneraz)
ISBN 978-84-8464-909-0. Llibres per a somniar.

Eu curareite, dixo oso pequeno (galegoz)
ISBN 978-84-8464-908-3. Tras os montes.

Eu ponho-te bom, disse o urso (portugesez)
ISBN 978-989-749-040-8. Livros para sonhar.

Behin batean, tigre txikia herrenka irten zen basotik.

Ezin zuen gehiago ibili, zutik ere ezin zuen egon,

eta lurrera erori zen. Eta hantxe geratu zen,

lurrean etzanda, belardiaren erdian.

Hartz txikia berehala etorri zen korrika eta oihu egin zuen:

–Zer gertatzen zaizu, Tigre, gaixo al zaude?

Janoschek sorturiko pertsonaia maitagarrien bizitzako beste atal bat da “Neuk sendatuk zaitut, Tigre”.

Oraingoan, tigre txikia gaixotu egingo da, eta bere lagun leiala arduratuko da hura zaintzeaz, haren gogoko jakiak prestatzeaz, lagunei deitzeaz, bisitan joan daitezen, eta tigre txikia eroso egon dadin ahal duen guztia egiteaz.

Animalien ospitalera lagunduko diegu, izeba Antzara, oinetako azkardun erbia, elefante grisa eta basoko beste lagun askorekin batera, denak joango baitira gaixoari laguntzera. Eta azterketa mediko berezi bat ikusiko dugu, X izpiekin, tigreak duen gaixotasun harrigarria aurkitzeko.

Bai testuari bai irudiei samurtasuna darie, adiskidetasunaren balioan sakontzen dute eta irakurlearen enpatia sorrarazten dute, umore finaz lagunduta. Elkarrizketen egitura errepikakorra eta Janoschek maisuki irudikatzen dituen eguneroko eszenak dira irakurlea liluratzeko gakoa, betiere mezu unibertsal bat zabalduz: “Gaur, zugatik; bihar, nigatik”.



■ **Gala:** adiskidetasuna une zailetan.

■ **Gomendatutako adina:** 7 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** gaixotasuna; adiskidetasuna, elkartasuna; animalia gizatiartuak; haur literaturako klasikoa, *Zein polita den Panama!*, *Altxor bat aurkituko dugu* eta *Posta tigrearentzat* ipuinen egile eta ilustratzailearena (Kalandraka-Pamiela).

Janosch

(Hindengurb, Alemania, 1931 -egun Zabrze, Polonia-)

Janosch de Horst Ecker-en ezizena da. Izen artistiko hori hartu zuen bere lehen editoreak bultzaturik. Haurtzaro zail baten ondotik, gazterik hasi zen lanean, errementari eta sarrailari gisa. II. Mundu Gerraren ostean, bere familia Mendebaldeko Alemaniara joan zen, eta oiha-lantegi batean hasi zen lanean. 1953an Munichera joan zen, eta aldi batez Arte Ederretako Eskolan ikasi zuen. Gero artista independente gisa hasi zen lanean, eta 1960an bere ibilbide artistiko eta literarioari hasiera eman zion liburua argitaratu zuen. 300 lanetik gora ditu, 70 hizkuntzara itzuliak, eta sari ugari jaso ditu. Nazioarteko ospea 1979an argitaratutako *Zein polita den Panama!* ipuinak eman zion. <http://www.janosch.de>

www.kalandraka.com

catalunya@kalandraka.com

www.pamiela.com
etxea